

Lardaskan, beroarena kentzen



Jakoba Errekondo
jakoba@bizibartztea.eus

Udazkenak badu gatz bizigarri berezi bat. Nire sasoi honetako saltsa ederki nahastuen duen broia-makila izan ohi dira urri-azaroak. Eguraldiak ikaragarri harrotzen du egoera hau. Bazen garaia eta etorri da freskura; hezetasunak bere onera dakar gure paisaia, eta hotz apurrak udako harropuzkeriei beroarena kentzen die. Hai-zeen borrokek bakoitzaren txokoa non dagoen gogorarazten dute, "pasa txokora" esanez bezala... Horrela, gainezka jartzen dira zoko, bazter eta ipular, hosto, zurikin, azal, adar eta abarreko gorpu, gorpuzkin, hilotz eta hiliki metak balira bezala.

Zikulu-saltsa ederra; lan ugaritan lardaskan, gustukoa zait oraingo hori. Uzta-emanak bete ditu mandio eta ganbara, eta oraindik zer jaso ere bada: kiwi, kuia, mizpira, gorde-sagar, arto...

Basoan ere lana besterik ez da. Inaurkintarako garoak (*Pteridium aquilinum*) etxeratzeko garaia bukatzen... Iraila edo garoila tokitan da. Aurrea dantzatzen berandu jarraitzen duenak su-egurra ere etxeratu dezake: pagoa (*Fagus sylvatica*) eta beste. Hostailari eusten dioten zuhaitz eta zuhaixkak landatzeko sasoi da. Baita, soiltzen direlako, neguan sartzearekin landatuko ditugunentzako zuloak egitekoa ere.

Etxe inguruan burua joateko adina hauste izango da. Hotzari aurre egite-



Lan ugari egiteko sasoi da udazken sasoi hau. Baba (*Vicia faba*) ereiteko, adibidez. W. AYARAJ-CC BY

ko gai ez diren landareei babesia eman beharko diegu. Ontzietan irauten dutenak aterpera, teilatu hegala azpira edo hormaren kontrara mugitu. Lurrean bizi direnei berezko babesia eraiki beharko diegu: txapitulatxo bat, edo gerria eta adar nagusiak oihal-zapiz bildu eta lotu (zitrikoek bereziki maite dute...). Baratzean egin beharrekoaz zertzelada batzuk: laboreak erein, baita baba (*Vicia faba*) eta ilarra (*Pisum sativum*) ere, lan-

datu tipulatxa (*Allium cepa* var. *agregatum*), arabarba (*Rheum rhabarbarum*), marrubia (*Fragaria* sp.) eta udaberriari loratuko diren idi-bihotza (*Tulipa* sp.), mugeta (*Convallaria majalis*), nartzisoa (*Narcissus* sp.)...

Izan ere, lanak egiteko aldarteari "azaroa" deitzen zaio, sasona edo sasoa. Nemesio Etxanizek idatzi zuen: "Udazkenean azaroa ta udaberriari baratzea loretan".ⁿ

Bizkaiko bertsozari txapelketa 2016

#bbt16 Finalurrekoa

BASAURI

Artunduaga polikiroldegian

Azaroaren 27an, 17:30ean

Aitor Bizkarra Ruiz, Beñat Ugarteitxeia Ostolaza, Imanol Uria Albizuri, Joseba Artza Zubillaga, Oñintza Enbeita Maguregi, Xabat Gallettebeitia Abaroa

Gai-jartzaile: Begoñe Oibarria Astobiza

Antolatzailea

Bertsotzaleak

Loguntzailea

www.bertsotzaleak/bizkaikotxapelketa